

LANBIDEK ENPLEGUA BULTZATZEKO 2025EKO PROGRAMA
LABORATORIUM MUSEOKO ERDI MAILAKO TEKNIKARI BAT ALDI BATERAKO
KONTRATATZEKO HAUTAKETA-PROZESURAKO OINARRIAK

1.- Oinarrien xedea

Oinarrien xedea da, **LANBIDE**ren Tokiko Enplegua Bultzatzeko 2025eko Programaren barruan, Laboratorium museoko erdi mailako teknikari bat aukeratzeko prozesua arautzea.

Lanpostuaren eginkizun eta ardura nagusiak Bigarren Oinarrian zerrendatzen direnak dira.

Kontratazioaren baldintzak:

- Kontratu honen iraupena sei hilabetekoa izango da.
- Lanpostuaren dedikazioa %100ekoa izango da eta urteko lanegunak eta ordutegia udalak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, lanpostuaren lan-jarduna goizez izanik, aurrerago adieraziko zaien ordutegian.
- Soldata urteko 34.495,99 euro gordinetako da.
- Kontratua 2025eko abenduaren 23rako egitea aurreikusten da.

Oinarri hauetan aurreikusten ez direnetan, eta behin-behineko egoerarekin bateragarri denetan, udalaren lan-hitzarmena aplikatuko zaie.

2.- Lanpostuaren eginkizunak

Honako hauek izango dira, beste batzuen artean eta lan-kategoriaren arabera, izango dituen eginkizun garrantzitsuenetakoak:

Museoaren barruan hezkuntza-eskaintza dinamizatzea eta, oro har, sail horretan sortutako kudeaketa-zereginetara erantzutea, kontratatutako kategoriaren eta kualifikazioaren arabera (dirulaguntzak eskatzea eta justifikatzea, bisitei dagokienez ikastetxeen dinamizazioa antolatzea, bisitei buruzko informazioa lantzeko eta zabaltzeko euskarriak gauzatzea...).

3.- Hautagai izateko baldintzak

Deialdi honen helburuari jarraituz, kontratatua izateko eta, beraz, hautaketa-frogetan parte hartzeko, honako baldintza hauek ezinbestekoak dira:

A) Lanbidek eskatutakoak:

1. Kontratatutak izateko langabezian eta izena emanda egon behar dute, eta alta emanda, honela:
Deialdi honi dagokion lan-eskaintza aurkezten denetik kontratua hasi aurreko egunera arte, enplegu-eskatzaileak langabezian eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta egon beharko du.
2. 2024ko Lanbideko enplegua sustapeneko deialdien edo gazteak kontratatze deialdien bidez Bergarako udalarekin kontratatua egon ez izana.

3. Kontratututako pertsona Debagoienari dagokion eremu geografiakoan bizi beharko da.

B) Bergarako Udalak ezarritako baldintza hauek betetzea:

- Formazioa: Unibertsitateko diplomatura edo gradu-titulua edo baliokideak izatea.
- 4. Euskara Hizkuntza (C2) ezagutzari dagokion euskara-maila izatea, derrigorrezkoa.
 - Maila hori duten izangairik ez balego, 3. Euskara Hizkuntza (C1) ezagutzari dagokion euskara maila duen izangaia onartuko da.

4.- Eskaintzaren epealdia

Eskaintza 2025eko abenduaren 9a arte egongo da irekia.

Epe horretan aurkeztu ahal izango dira eskaerak, LANBIDE zerbitzu publikora bideratu beharko direlarik.

5.- Hautagaien aukeraketa

5.1.- Azterketen fasea (oposizioa)

Baldintza guzti horiek betetzen dituztenen artean aukeraketa egingo da frogen bitartez.

1.- Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasuna neurtzeko proba

Baztertzaila(k) d(ir)en proba(k) egitean datza. Proba hori(ek) lanpostuen eginkizunekin zerikusia du(t)en proba(k) izango d(ir)a, Epaimahaiak zehaztutakoa(k), eta hark erabakitako denboran egingo d(ir)a.

Proba horietako bat museoaren erakusketaren inguruko informazioa landu eta ahoz azaltzea ere izan daiteke.

Honako hauek baloratuko dira, orientazio gisa:

1.- Dirulaguntzen araudia: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa:

IV. KAPITULUA. Dirulaguntza publikoa kudeatzeko eta justifikatzeko prozedura

30. artikulua. Dirulaguntza publikoen justifikazioa.

31. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

32. artikulua. Dirulaguntzak egiaztatzea.

33. artikulua. Balioak egiaztatzea.

II. TITULUA. Dirulaguntzak itzultzea

I. KAPITULUA. Itzulketa

37. artikulua. Dirua itzultzeko arrazoiak.

40. artikulua. Dirua itzuli behar dutenak.

II. KAPITULUA. Dirua itzultzeko prozedura

42. artikulua. Dirua itzultzeko prozedura.

- 2.- Laboratorium museoaren ezagutza.
- 3.- Laboratorium museoaren jarduerak
- 4.- 7/2006 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Museoei buruzkoa. (1-4 artikulua eta 10-12 artikulua (guztiak barne))

Laurogei (80) puntura arte baloratuko da, eta gutxienez 40 puntu lortu beharko dira baztertua ez izateko.

Probaren eguna: 2025eko abenduaren 12an.

Web-orrian eta udaleko iragarki-taulan jakitera emango da egun eta ordu zehatza.

2.- Euskara jakitea:

Euskararen ezagutza egiaztatzeko probak. Derrigorrezkoa eta baztertzaila lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta ez duten hautagai guztientzat.

Euskara Zerbitzuak 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egingo dira. "Gai" edo "Ez gai" baloratuko da.

Proba honek barne eraginak izango ditu; horrenbestez, Bergarako Udalak ez du inongo ziurtagiririk emango.

Ez dute euskarako azterketa egin beharrik izango euskara-maila egiaztatzeko azterketak egin baino lehen Epaimahaiari 4. hizkuntza-eskakizunaren egiaztatzea aurkezteko diotenen.

Probaren eguna: 2025eko abenduaren 15ean.

Web-orrian eta udaleko iragarki-taulan jakitera emango da egun eta ordu zehatza.

Azterketen fasearen jardunbidea.

- 1.- Ariketa guztiak egitera nortasun agiri nazionalarekin edo baliokidearekin (gida baimena edo pasaporte) joan beharko da.
 - 2.- Era berean, Epaimahai Kalifikatzaileak beharrezko neurriak hartuko ditu azterketen faseko ariketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, bai halaber ariketa horiek hautagaien identitatea ez ezagutzeko moduan zuzenduak izan daitezen.
 - 3.- Baldin eta hautagaien bat Epaimahai Kalifikatzailearen deialdara agertzen ez bada hark adierazitako lekuan, egunean eta orduan, ezinbesteko arrazoiengatik izan arren ere, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da erabat.
 - 4.- Kanporatzekoak diren ariketetako bakoitza bukatu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udalaren iragarpenen taulan eta udalaren web-gunean (www.bergara.eus) argitaratuko ditu ariketa bakoitzaren emaitzak.
- Proba bakoitzaren emaitzak argitaratu eta gero, **gutxienez 3 egun balioduneko epea** izango da ariketa berraztertzeko edo/eta erreklamazioak aurkezteko. Epaimahaiburuari bidali behar zaizkio erreklamazioak, idatziz, Bergarako Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztuta.

Probak egiteko egunean erreklamazioen bat ebatzteke badago, interesdunak kautelaz egin ahal izango ditu, baina ez dute baliorik izango errekurtsua ezesten bada.

5.2.- Merezimenduen fasea (lehiaketa)

Froga gainditu dutenek merezimenduen fasera igaroko dira eta honako puntuazioa emango zaie:

- .Honako baldintza hauetako bat betetzea :
 - 35 urte baino gutxiago izatea: **10 puntu**.
 - Bergaran erroldatuta egotea, gutxienez 2022ko martxoaren 15etik: **10 puntu**
- Lan esperientzia:
 - Museo edo erakusketa baten teknikari lanetan aritu izana, eguneko 0,015 puntu eta gehienez ere 7 puntu arte baloratuko da.
 - Turismo bulegoen edo erakusten aretoen kudeaketa lanetan aritu izana, eguneko 0,025 puntu eta gehienez ere 15 puntu arte baloratuko da.
- Ingelesa hizkuntza ezagutzea: Hizkuntzen eskola ofizialeko B2, C1 eta C2 tituluak izatea, 3, 4 eta 7 punturekin hurrenez hurren baloratuko dira.
 - Halaber horien baliokideak diren beste ingeleseko titulu parekideak ere berdin baloratuko dira.
 - Maila bakoitza behin baloratuko da eta goiko maila bat duenari ez zaizkio azpikoak baloratuko.

5.3.- Ariketen kalifikazioa eta merezimenduen ebaluazioa bukatutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udalaren iragarpenen taulan eta Udalaren web-gunean (www.bergara.eus) emango ditu argitara oposizio-lehiaketa gainditu duten hautagaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera gehienekotik gutxienera ordenatuak, eta puntu gehien lortu dituenak kontratatzeko proposamena egingo du.

6.- Epaimahai Kalifikatzailea

Aukeraketa-probetan Epaimahai Kalifikatzailea ondoren aipatzen direnek osatuko dute:

Lehendakaria: Museoko arduraduna

Bokalak:

- Kulturako aldi baterako teknikaria
- Museoko teknikaria
- Idazkaritzako AOT
- Enpresa Komiteak izendatutako kide bat.
- Euskara Zerbitzuko burua, euskara-probarako

Idazkaria: Udalarena, edo hura ordezkatzeko duen funtzionarioa

Beharrezkotzat jotzen duen probetarako, Epaimahaiak aholkulariak izendatu ahal izango ditu.

Parte hartu ahal izango dute Antolakuntza Batzordeko kide diren zinegotziek, baina ez dute boto-eskubiderik izango.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, prozeduraren legezkotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarritik.

Hautaketa-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietaren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetaren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

7.- Kontratazioa

Kontratatze proposatua izan den izangaiari, jakitera emango den epean, hauta-prozesuan parte hartzeko oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea eskatu ahalko zaio, betiere ofizioz egiaztatu ezin izan badira.

Baldin eta esandako epean, eta ezinbesteko arrazoren batengatik izan ezean, hautagai proposatuak agiriak aurkeztu ez baditu edo deialdian eskaturiko baldintzak betetzen dituenik egiaztatu ez badu, ezingo da kontratatua izan eta haren jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira eta prozesutik kanporatzea erabakiko du alkatea.

Organo eskudunak Epaimahai Kalifikatzaileak proposaturiko hautagairi Lanbide Alpes programako aldi baterako kontratua egingo dio, betiere oinarri honetan aipatzen diren agiriak eta emandako epean aurkeztu balitu.

Frogaldiaren iraupena gehienez ere 2 hilabetekoa izango da. Denbora hori efektiboki burutu beharko du, eta, gainera, izaera kanporatzailea izango du.

Behin-behineko ezgaitasun-egoeragatik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta adopzio edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du, eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

Denboraldi hori amaitu aurretik, txostena egingo du gainera daukan hurrengo buruak, eta erakutsi dituen gaitasun hauek hartuko ditu kontuan txosten horretan: Lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta efizientziaren zentzua, lanerako prestasuna eta iniziatiba, eta lanarekiko agertutako interesa. Lantaldean integratzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Kontratua bertan behera utzi eta eskubideak galtzeko arrazoia izango da frogaldia ez gainditzea.

Horrelakorik gertatuko balitz, prozesuan hurrengo den izangaia kontratatuko da, aurretik oinarri honetan jasotakoak betetzeko epea emango zaiolarik eta frogaldiari adierazitakoak aplikagarri izanik ere.

8.- Intzidentziak.

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oposizio-lehiaketaren ordena eta buruzpide onerako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren guztietan.

9.- Datu pertsonalen babesa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko araudiak ezarritakoa betez, izangaien izaera pertsonaleko datuak tratamendu-jarduera baten baitan kokatzen dira. Tratamendu horren helburua da langileak hautatzeko prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egitea, baita hautaketa prozesutik sortuko den lan-poltsa kudeatzea ere.

Bergarako Udala, datu tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalak tratatzeko legimitatuta dago interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeagatik tratatzen direlako datuak, lege betebeharrak baten baitan tratatzen direlako, eta baita, datuak beharrezkoak direlako interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko tratamendua beharrezkoa delako.

Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, tratamenduaren aurka egin zein horien mugatzea eskatzeko eskubidea egikaritu ahal izango da tratamenduaren arduradunaren aurrean, ondorengo helbidera zuzenduta: San Martin Agirre plaza, 1, 20570, Bergara (Bergarako Udala).

Halaber, eskubideak errespetatu ez badira edo eskaerari erantzun zuzena eman ez bazaio, hautagaiak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan (<https://www.avpd.euskadi.eus>). Tratamenduari buruzko informazio osagarria eskuragarri dago Bergarako Udalaren webguneko Pribatutasun Politika atalean eta Datuen Tratamendu Jardueren Erregistroan (www.bergara.eus/RAT). Tratamenduaren kodea honakoa da: 0602.

10.- Inpugnazioak.

Honako deialdi hau, beronen oinarriak eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako epeetan eta forman.

PROGRAMA DE LANBIDE DE FOMENTO DE EMPLEO 2025
BASES DEL PROCESO SELECTIVO PARA LA CONTRATACIÓN TEMPORAL DE UN/A
TÉCNICO/A MEDIO DEL MUSEO LABORATORIUM

1.- Objeto de las bases

Constituye objeto de las presentes bases la regulación del proceso de selección de un/a técnico/a medio del museo Laboratorium, dentro del Programa de Fomento de Empleo Local 2025 de LANBIDE.

Las funciones y responsabilidades principales de este puesto de trabajo son las relacionadas en la Base Segunda.

Condiciones de contratación:

- La duración del contrato será de seis meses.
- La dedicación será del 100% y el calendario y horario laboral serán los establecidos anualmente por el ayuntamiento, siendo la jornada del puesto de mañana, en el horario que se indicara mas adelante.
- El salario anual será de 34.495,99 euros brutos.
- La fecha prevista de formalización del contrato: 23 de diciembre de 2025.

Para cuanto no esté previsto en las presentes bases, será de aplicación el convenio laboral municipal en todo aquello que sea compatible con el carácter temporal del contrato.

2.- Funciones del puesto

Sus funciones principales serán, entre otras y en función de su categoría laboral, las siguientes:

Dinamizar la oferta educativa dentro del Museo y, en general, atender las tareas de gestión creadas en este departamento en función de la categoría y cualificación contratada (solicitud y justificación de subvenciones, organización de la dinamización de los centros educativos en relación con las visitas, elaboración de soportes para la elaboración y difusión de la información sobre las visitas...).

3.- Requisitos de las personas aspirantes

Atendiendo a la finalidad de esta convocatoria, para la contratación y, por tanto, para la participación en las pruebas de selección, son requisitos imprescindibles los siguientes:

A) Exigidos por Lanbide:

1. Estar en situación de desempleo e inscrito/a y dados/as de alta en el Servicio Público de Empleo Lanbide-Servicio Vasco de Empleo de la siguiente manera:

Durante el plazo que va desde desde la presentación de la oferta de empleo correspondiente a esta convocatoria y hasta la fecha anterior al inicio del contrato la

persona solicitante de empleo deberá estar en situación de desempleada e inscrita en el Servicio Público de Empleo Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

2. No haber estado contratada en el Ayuntamiento de Bergara a través de las convocatorias de fomento de empleo o contratación de jóvenes de Lanbide de 2024.
3. La persona contratada deberá residir en el ámbito geográfico correspondiente al Alto Deba.

B) Cumplir los siguientes requisitos establecidos por el Ayuntamiento de Bergara:

- Formación: Estar en posesión de diplomatura universitaria o título de grado o equivalente.
- Contar con nivel de euskera correspondiente al Perfil Lingüístico 4 (C2), preceptivo.
 - Si no hubiera personas aspirantes con este nivel, se admitirá a la persona aspirante con nivel de euskera correspondiente al Perfil Lingüístico 3 (C1).

4.- Plazo de la oferta

Esta oferta permanecerá abierta hasta el 9 de diciembre de 2024.

Las solicitudes podrán presentarse, durante dicho plazo, debiendo dirigirse al servicio público LANBIDE.

5.- Selección de personas candidatas

5.1.- Fase de exámenes (oposición)

Entre las personas aspirantes que reúnan todas los requisitos se realizará la selección a través de una serie de pruebas.

1.- Prueba para medir la capacidad para desempeñar las funciones del puesto.

Consiste en la realización de una(s) prueba(s) de carácter eliminatorio. Esta(s) prueba(s), que tendrá(n) relación con las funciones de los puestos y con los siguientes temas, será(n) determinada(s) por el tribunal y se realizará(n) en el tiempo señalado por el mismo.

Una de estas pruebas podrá consistir también en elaborar y exponer oralmente información sobre la exposición del museo.

Se valorará lo siguiente, a título orientativo:

1.- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones:

CAPÍTULO IV. Del procedimiento de gestión y justificación de la subvención pública

Artículo 30. Justificación de las subvenciones públicas.

Artículo 31. Gastos subvencionables.

Artículo 32. Comprobación de subvenciones.

Artículo 33. Comprobación de valores.

TÍTULO II. Del reintegro de subvenciones

CAPÍTULO I. Del reintegro

Artículo 37. Causas de reintegro.

Artículo 40. Obligados al reintegro.

CAPÍTULO II. Del procedimiento de reintegro

Artículo 42. Procedimiento de reintegro.

2.- Conocimiento del museo Laboratorium.

3.- Actividades del museo Laboratorium

4.- Ley 7/2006, de 1 de diciembre, de Museos de Euskadi.(artículos 1 al 4 y artículos 10 al 12 (todos incluidos).

Se valorará hasta ochenta (80) puntos, y para no ser excluido/a se deberán de obtener como mínimo 40 puntos.

Día de las pruebas: 12 de diciembre de 2025.

La hora concreta se dará a conocer en la página web y en el tablón de anuncios del ayuntamiento.

2.- Conocimiento de euskera:

Pruebas para acreditar el conocimiento de euskera. De carácter obligatorio y eliminatorio para todas las personas aspirantes que no tengan acreditado el perfil lingüístico asignado al puesto.

El Servicio de Euskera realizará pruebas de acreditación del perfil lingüístico 3. Se valorará como “Apto” o “No apto”.

Esta prueba tendrá efectos internos, por lo que el Ayuntamiento de Bergara no emitirá certificación alguna.

Quedarán exentas de realizar el examen de euskera aquellas personas que, antes del inicio de las pruebas de conocimiento de euskera, aporten ante el Tribunal documento acreditativo de estar en posesión del perfil lingüístico 3.

Día de las pruebas: 15 de diciembre de 2025.

La hora concretas se darán a conocer en la página web y en el tablón de anuncios municipal.

Procedimiento de la fase de exámenes.

1.- Para la realización de todos los ejercicios se deberá acudir con el documento nacional de identidad o equivalente (permiso de conducir o pasaporte).

2.- Así mismo, el Tribunal Calificador adoptará las medidas precisas para garantizar la confidencialidad tanto del contenido de los ejercicios escritos de la fase de exámenes como de la corrección de los mismos sin conocer la identidad de las personas aspirantes.

3.- Las personas aspirantes que no comparezcan a la convocatoria en el lugar, día y hora establecidos por el Tribunal Calificador, incluso por causa de fuerza mayor, quedarán excluidas definitivamente del proceso de selección.

4.- Tras finalizar cada ejercicio eliminatorio, el Tribunal Calificador publicará los resultados de cada ejercicio en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Bergara y en la página web municipal (www.bergara.eus).

Una vez publicados los resultados de cada prueba, se dispondrá de un **plazo de 3 días hábiles** para revisar el ejercicio y/o presentar reclamaciones. Las reclamaciones se dirigirán por escrito al Presidente/a del Tribunal, presentándolas en el Registro General Electrónico del Ayuntamiento de Bergara.

En caso de que a la fecha de realización de las pruebas hubiera alguna reclamación pendiente de resolución, la persona interesada podrá realizar las pruebas de forma cautelar, pero estas no tendrán validez si el recurso es desestimado.

5.2.- Fase de méritos (concurso)

Aquellas personas aspirantes que hayan superado la fase de los exámenes pasarán a la fase de méritos y se les otorgará la siguiente puntuación:

- Cumplir alguna de las siguientes condiciones :
 - Ser menor de 35 años: **10 puntos**.
 - Estar empadronado/a en Bergara : como mínimo desde el 15 de marzo de 2022: **10 puntos**
- Experiencia laboral:
 - Haber trabajado como técnico de un museo o en exposiciones, se valorará con 0,015 puntos por día y hasta un máximo de 7 puntos
 - Haber realizado trabajos de gestión de oficinas de turismo o salas de exposiciones, se valorará con 0,025 puntos por día y hasta un máximo de 15 puntos.
- Tener conocimiento de inglés: Tener los títulos B2, C1 y C2 de la escuela oficial de idiomas, se valorará con 3, 4 y 7 puntos respectivamente.
 - Asimismo, los títulos de ingles equivalentes a los mismos se valorarán de igual manera.
 - Cada nivel se valorará un sola vez y a quien tenga un nivel superior no se le valorarán los inferiores.

5.3.- Una vez efectuada la calificación de los ejercicios y finalizada la valoración de los méritos, el Tribunal Calificador publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Bergara y en el sitio web municipal (www.bergara.eus) los nombres de las personas aspirantes que hayan superado el concurso-oposición, conforme al orden de puntuación obtenido, en orden decreciente, y propondrá la contratación de la persona que haya obtenido la mayor puntuación.

6. Tribunal Calificador

El Tribunal Calificador de las pruebas de selección estará formado por los siguientes miembros:

Presidente: Responsable del museo

Vocales:

- Técnico/a temporal de cultura
- Técnico/a de intervención
- TAG de secretaria
- Un/a miembro designado por el Comité
- Jefe/a del Servicio de Euskera, para la prueba de euskera

Secretario/a: El del ayuntamiento, o persona funcionaria que la sustituya

Para las pruebas en que se estime necesario, el Tribunal podrá nombrar asesores/as.

Podrán tomar parte, con voz pero sin voto, las/los concejales miembros de la Comisión de Organización.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, prozeduraren legezkotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hautaketa-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

7.- Contratación.

A la persona aspirante propuesta para la contratación, en el plazo que se dará a conocer, se le podrá requerir para que presente los documentos para acreditar el cumplimiento de los requisitos exigidos para su participación en el proceso selectivo, siempre que no se hayan podido acreditar de oficio.

Si dentro del plazo señalado, y salvo causas de fuerza mayor, la persona aspirante propuesta no presentase la documentación o no acreditase reunir los requisitos exigidos en la convocatoria, no podrá ser contratada y quedarán sin efecto todas sus actuaciones y desde Alcaldía se resolverá su exclusión del proceso.

El órgano competente formalizará a la persona candidata propuesta por el Tribunal Calificador un contrato temporal del programa Lanbide Alpes, siempre que hubiera presentado la documentación a que se refiere esta base y en el plazo concedido.

El periodo de prueba tendrá una duración máximo de 2 meses, duración que deberá ser efectivamente realizada y tendrá, además, carácter eliminatorio.

El disfrute de licencias por incapacidad temporal, maternidad, paternidad y adopción o acogimiento supondrá la suspensión del período de prueba, reanudándose el cómputo del período de prueba que faltara tras su incorporación.

Antes de la finalización de dicho período, el/la jefe/a inmediato/a superior/a emitirá informe, en el que se tendrán en cuenta las siguientes aptitudes demostradas: capacidad de trabajo y rendimiento profesional, sentido de la responsabilidad y de la eficiencia, disposición e iniciativa

para el trabajo, e interés mostrado hacia el trabajo. Se tendrá en cuenta, asimismo, la capacidad demostrada en cuanto a su integración en el equipo de trabajo.

Será causa de rescisión del contrato y pérdida de sus derechos que la persona aspirante no haya superado el período de prueba.

En dicho caso, se contratará a la siguiente persona aspirante en el proceso, concediéndole previamente un plazo para el cumplimiento de lo previsto en la presente base y siéndole de aplicación lo dispuesto en cuanto al periodo de prueba.

8.- Incidencias.

El Tribunal Calificador quedará facultado para resolver las dudas que pudieran surgir y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden y desarrollo del concurso-oposición en todo lo no previsto en estas bases.

9.- Protección de datos de carácter personal

De conformidad con lo establecido en el Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento General de Protección de Datos), en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre de 2018, y en el resto de normativa vigente en materia de protección de datos, los datos de carácter personal de las personas aspirantes se enmarcan dentro de una actividad de tratamiento, cuyo objetivo es la gestión y seguimiento del proceso de selección de personal, así como la gestión de la bolsa de trabajo que resulte del mismo.

El Ayuntamiento de Bergara, como responsable del tratamiento de datos, está legitimado para el tratamiento de datos de carácter personal por el cumplimiento de una misión realizada en interés público, por tratarse los datos en el marco de una obligación legal, así como por la necesidad de tratamiento para la ejecución de un contrato en el que la persona interesada sea parte. El Ayuntamiento de Bergara, siempre que la persona candidata no se oponga expresamente, facilitará a otras Administraciones Públicas los datos personales de las personas aspirantes que formen parte de la bolsa de trabajo, con el fin de atender necesidades de contratación temporal de personal que puedan surgir en puestos de trabajo similares al que se pretende acceder a través de esta convocatoria. Esta cesión de datos tendrá como objetivo único y exclusivo que dichas administraciones públicas puedan realizar ofertas de empleo en los términos legalmente previstos.

Podrá ejercitarse el derecho de acceso, cancelación, rectificación, oposición y limitación del tratamiento de los datos ante el responsable del tratamiento, dirigiéndose a la siguiente dirección: Plaza San Martín Agirre, 1 – 20570 Bergara (Begarako Udala - Ayuntamiento de Bergara).

Asimismo, en caso de que no se respeten los derechos o no se haya respondido correctamente a la solicitud, la persona aspirante podrá presentar una reclamación ante la Autoridad Vasca de Protección de Datos (<https://www.avpd.euskadi.eus>). La información complementaria sobre el tratamiento se encuentra disponible en el apartado de Política de Privacidad y en el Registro de Actividades de Tratamiento de Datos (www.bergara.eus/RAT) del sitio web del Ayuntamiento de Bergara. El código de tratamiento es 0602.

10.- Impugnaciones.

La presente convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de ella y de la actuación del Tribunal Calificador podrán ser impugnados en los plazos y forma establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.